



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-06-06

VIURTEA 1.453.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSU AGIRRE TXIRRINDULARIA

«Oso gogorra izan da, baina berriro lehiatuko nintzateke Italiako Giroan»

TOLOSA Berriro ere etxean da Euskal-Euskadi taldeko txirrindularia bere lasterketa «gogorrean» aritu ostean

ITZULIA «Esan izan balidate alde eginda ibiliko nintzela etapa batean ez nuen sinistuko», dio 4-5



I.TERRADILLOS



Pirritx eta Porrotx izan ziren atzo Tolosan gaztetxoekin jolasean. KUSK

INGURUMENAREN EGUNAREKIN BERDEZ 3

DISEINU GRAFIKO eta sormenean
oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es

INFORMAZIOA 943 310 873

Hiria Pasealekua 05 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

Indianoene 1 20013 Donostia

Telf: 943 272 587 e-posta: zurriola@ikastola.net

www.barandiaranlizeoa.com

10 urte 10 kirol

Ekainak 7 (9:00 - 13:00)

Pio Baroja Kiroldegian

Haur, gazte eta helduentzat

dohainik

- Tenis
- Eskalada
- Esgrima
- Badminton
- Spinning
- Patinak
- Fitness Balance
- Defentsa pertsonala
- Batuka
- Jolasak



Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Gezurerekin inora ez! Izena zikindu besterik ez!

Pasa den astean atal honetan Maria Larrazak idatzitako gutunari erantzuna:

Maria Larraza, bere kotxe berria Mini Cooper, eskuz garbitzeko asmoz joan zen Ibai-Ondo Garbiketarako enpresara.

Kotxea garbitzen ari zela, «marratzen ari zitzaiola» konturatu zenean, bertako arduradunarengana joan zen erreklamatzera.

Bertan, instalazioen ardura duna aurkitu eta «orraziak kotxea marratu ziola» esan zion. Honek, berriz, orrazi berriak zirela eta ezinezkoa zela marraztea erantzun zion. Mariak, instalazio hobeagoak eduki behar zituzkeel esan zioenez, arduradunak «y una negra que te abanique tambien» erantzun zion.

Kotxeko marrak ikustera joan ziren. Giltza batekin egindako marrak ziruditen; atean bat, kapotean beste bat, aletan, eta saipian beste.

Marratzen ari zaizula konturatu eta segituan garbitzeaz uzten baduzu, ezinezkoa da horren sakabanaturiko marrak edukitzea.

Arduradunak, marra horiek orraziak eginak ez zirela esan zion eta ea nola egin zituen erantzun zion. Hitz tira-bira baten ostean, arduradunak, orrazi berberekin garbituko diola kotxea proposatzen idio.

Kotxea marratu ezker, oso osorik konponduko diola esanik.

Horrela bada, kotxea garbitzen dio. Garbitu ostean, marra-rik ez zenez agertu, orraziak eginak ez ziren marra horietaz ez zela ziguru egingo erantzun zion

arduradunak. Orduan, Mariak seguruko orriak eskatu zizkion espresako jabeari.

Honek, aldiz, berak ez iztuzenez marra horiek egin, ez zizkiola zertan seguruko orriak eman beharrik esan zion.

Erreklamazio orria eskatu zuen. Honek, eman ondoren, «Berak garbitu du. Ez dakizun ibilgailua zein egoeratan ailegatu den hona. Hori dela eta, ez dugu gure gain hartzen» sinatu eta idatzi zion.

Egun batzutura, orrazi hura falta izan zen baten batek lapurtuta. Zeinek? Zergatik? Non erreklamatu?

Ibai-Ondo Garbiketarako

Musika eskola

Jokin Ansorena kultur teknikariarengana jo ostean, Andoni Iturzaeta kultur zinegotziari idatzi ostean eta Tolosako alkate Jokin Bildarratz berari idatzi ostean, lehenengoaren erantzuna soilik jaso dut: «Aurrekontu arazo da».

Lotsagarria iruditzen zait Tolosako Udalak Musika Eskolan duen eskaria ez asetzea. Ez da normala ume bat lau urte dituenetik musika eskolara eramatea eta instrumentua aukeratzeko garaia heltzen denean berak nahi duena ez izatea. Hau da nire semearen kasua, esaterako, perkusioarekin. Guztiak eskuak garbitzen dituzte eta inorrek ez du irtenbiderik ematen.

Gero gazteria bandan, txaranga eta bestelako musika jardueratan parte hartzen ikustea gustatzen zaigu; nire semeari, bederen, gogo eta nahi guztia kendu diote.

Nerea Lopez de Murillas.

'Goiza pasa 2008' udaleku irekiak Iruran

Goiza pasa 2008 udaleku irekiak herrian bertan, aurten Iruran ekainaren 30etik uztailearen 30era egingo dira. Izen-emate-epaia ekainaren 12ra arte egingo da zabalik.

Alde batetik, 2 eta 11 urte arteko haurrak eman dezakete izena udalekuean parte hartzeko.

Aurten bi txandatan parte har daiteke: Ekainaren 30etik uztailearen 14ra eta uztailearen 15etik 30era. Edo hilabete osoa (ekainaren 30etik uztailearen 30era.

Orduetako goizeko 10:00etatik 13:00etara da. Norbaitek lehenago atera behar badu etxetik eta 7 urte edo gutxiagoko haurra badu, 09:00etarako ekar dezake Irurako Ludotekara eta *Goiza pasako* begiraleek zainduta (10 euro gehiago ordainduta).

Bestalde, begirale gisara parte hartu nahi duenak Irurako Udalekuean, goian adierazitako epe berdina du kurrikuluma aurkezteko Irurako Udaleko kultura bulegoan.

Begirale gisara parte hartzeko ezinbestekoa da 18 urte beteak izatea eta euskaraz jakitea. Ho-

rrez gain, baloratuko da Irurakoa izatea, Irurako haurrak eza-gutzea, udalekuean eskarmen-tua izatea eta batez ere horrelako gauzetan parte hartzeko eta antolatzeko gogo handia edukitzea.

Lan-egutegia izango da ekainaren 23tik uztailearen 30era. Egutero gutxienez goizeko 09:00etatik 13:00etara lan egin beharko da eta gainera egun batzutan (astean behin) arratsaldeko 17:00ak arteko disponibildadea izan beharko da. Zalantzak argitzeko idatzi *kultura@irura.net* helbide elektronikora.

Irurako Udala

Otañoakoak Flemingean

Nolega programa barruan (euskaraz erabileraren areagotzeko ikas gelaz kanpo) diru laguntzari esker elkartrukatzeko izaten dugu beste ikastetxeekin, hainbat ekintza eginez. Batzuetan berriak guregana datoz besteetan gu hara goa. Aurten Zizurkilgo Otañoakoak etorri zaizkigu eta antzerki polita eta olerki sorta eskeini digute. Guk berriz, abesten eta dantzari aritu gaizkaitzkie.

Fleming haurreskola (Villabona)



Otañoako ikasleek Flemingoak bisitatu zituzten. HITZA

Leitzatik Turkiara**» Kale kantoitak**

Joxemi Saizar

Eskaualdeko bi pilotari eskuz banakako txapelketako finalista izatea sekulako albistea da. Baina tranpa txiki bat dauka: Leitzaldeko *Tolosalderatu* egin genuela Hitzarako. Bestela ezinezkoa litzateke. Pentsa, Gipuzkoa osotik ere ez da inor iritsi azken urteotan finalera, Joxean Tolosa amezketarrak irabazi zuenetik. Hau izan da, besteak beste, Leitzaldeko urte hauetan eman duen ekarpenik handiena dudarik gabe. Hala ere ez da bakarra izan: beste kirolari, kultur pertsona, ekitaldi eta saio asko ere badiu eskualde nafar anaiek. Zorionak, aupa Oinatz eta Abel eta eonenga!

40 urte bizi bete ditu Laskorain ikastolak eta bere historian zehar partaide izan dituen 4.000 ikasle inguru, haien gurasoak eta ia 200 langileen artean aukeraketa eginda, liburu batean jaso ditu hainbat bizipen, oroimen eta sentipen. Gaur egungo ikasle helduenek ere poesia emanaldi aparta eskaini dute aste honetan bertan Leidorren, liburuaren aurkezpena zela eta. Ikastaro amaierako ikastetxeetako jaialdi ugari izaten dira egun hauetan. Maila goian jarri dute gazte hauek.

Gaur bukatuko da Mundua Tolosan musika ekimena Eskoziako zelta doinuekin. Leio ezin hobea ireki digute antolatzaileek eremu horretara. Israelgo abeslari bati boikota egiteko aprobetxatu zuten batzuk. Turkiako ordezkariarekin ez dute gauza bera egin, nahiz eta (beraien eskematan) giza eta herrien eskubideak ere jarraitzen duten hiruko erregea?

Gerontogiko berriko solairu batek gaixo mentalak hartuko dituela esan dit txoritxo batek. Egia al da? Hala bada, zergatik ez da inon argitaratu? Ez al da *komeni*?

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

Zaindu beharreko altxorra

Ingurumena » Hainbat ekitaldi izan ziren atzo eskualdean Ingurumenaren Nazioarteko Egunean.



Ederki igaro zuten atzokoan gaztetxoek Pirritx eta Porrotxekin. KLUK

ERREDAKZIOA

Ingurumenaren Nazioarteko Egunearekin batera, atzo hasi zen Aste Berdea. Hala, Tolosan nahiz eskualdeko herri batzuetan hainbat ekitaldi izan ziren.

Tolosako Udalak herritarrek berdez janztera gonbidatu zituen atzokoan. Eta hala egin zuten eguerdian Plaza Zaharrean ingurumenari buruzko manifestua irakurri zuten gaztetxoek. Pirritx eta Porrotxek ere bat egin zuten ekimenarekin, eta haurrekin kantuan aritu ziren. Pailazoekin jolasteaz gain, gurpildun zezenekin ere jolasteko aukera izan zuten gaztetxoek. Arratsaldean, berriz, Haur Liburutegian gaztetxoek zuzenduriko zientzia tailerrak izan ziren.

Gaiarekin zerikusia duen filma izan zen baita ere atzo ikusgai Leidorren Zine Forumean, Blade Runner, hain zuzen.

Herriko zuhaitzak ezagutzu

Tolosako zuhaitz berezi batzuk bisitatzeko ibilaldi gidatu bat eskainiko dute Ingurumen Eskolako

hezitzaileek gaur. Zuhaitzen ezaugarriak, kuriositateak eta batak bat Elosegitarren lorategiari buruzko hainbat informazioa emango dute. Nahi duten herritarrek aukera izango dute izena emateko 943 65 25 44 zenbakira deituta, edo zuloagatikiki@euskalinet.net helbidera idatzita.

17:00etan izango da, eta ordubeteko iraupena izango du. San Frantziskon, Frontoi kafetegiaren aurrean egin dute hitzordua.

Bestalde, Ernioaldeatik antolatuta, bisita egin zuten Emausen Ekocenterrera. Hamar bat lagun joan ziren, gehienbat Aduna eta Villabonakoak.

Bigarren eskuko azoka

Ernioaldeak antolatuta ere, bihar Villabonan bigarren eskuko azoka egingo dute Berdura plazan, 10:30etik 14:00etara. Leku berdinean, *Inguru/Menua* antzezlan egingo du Ten Con Ten taldeak.

Jesusen Bihotza Ikastolakoak izango dira postu bat jarriko dutenetako bat. Idoia Ariznabarreta irakasle eta Eskolako Agenda 21eko arduradunak dioenez, azokan parte hartzeak ikasturte honean egiten ari diren lanarekin bat egiten du: «Hondakinen gaia jorratzen ari gara. Birziklatzea eta gauzak berrerabili behar direla bultzatzen ari gara. Besteek gure gauzak aprobetxatu ditzazketela ikusteko modu bat azoka».

Leire Orellak esperientzia badu bigarren eskuko azoketan. Azken aldian Hermanin hilean behin egiten dituzte. «Oraindik ez dago ohitura handia gure artean horrelako azokekin», dio, «baina oso gauza dibertigarria da eta animatuko nioke jendeari bai postua jartzera bai azokara joatera». Aste Berdearen baitan horrelako ekimen bat antolatzea oso positibotzat jotzen du Orellak. «Birziklatzea etorkizunaz itzateko onena izango litzateke».

S Soka motzean

«Loreekin lan egitea polita da, baina fisikoki gogorra ere bada»

JON CASARES

Goroldi enpresako arduraduna

E. EZEIZA

San Frantzisko ibiltokiko lorategietako loreak aldatzen topatu ditugu Goroldiko langileak. Jon Casares (Leitza, 1958) arduradunak azaldu digu euren lana nolakoa den.

Zer landare ari zarete landatzen?

Begonia, petunia txuria, binca, matricaria eta alegria. Nahasketa bat da.

Aldatzeko garaia zen?

Bai, neguan belarra izaten da, eta orain garaiko loreak landatzen ditugu, zonaldearen arabera beti ere.

Gustatzen al zaizu zure lana?

Loreekin lan egitea polita da, baina fisikoki gogorra dela esan behar. Zer-baitetaz kezkatzekotan, txakur kakekin izaten dugu nahikoa lan zelaietan.

Zure etxean ere loreak ba al dituzu?

Bai, lorategi txiki bat dut, eta landatzen ditut loreak.

Polita al dago une honetan herria?

Bai, baina kontua da, azken euriteengatik belar ugari dagoela, eta orain lan asko dugu hori txukuntzen.



Jon Casares (ezkerrean) Goroldiko lankideekin. I. TERRADILLOS

think gaur

MUNDU GLOBAL BATEAN ARI GARA
PENTSATZEN
NON EUSKADIREN
ETORKIZUNAK
BRUSELA ERE
HARTU BEHARKO
DUEN KONTUAN

EGITASMO
HANDI BATEAN
ARI GARA LANEAN
BIHARKO EUSKADI
ERAIKITZEKO

EAJ PNV

think gaur EUSKADI 2020 EUSKADI-EUROPA

www.thinkgaureuskadi2020.com

Bihar, zaldi raid-ari eta zaldiari buruzko ikastaro berezia izango da

Bedaio » Kultur Asteburuaren baitan, Marian Guridi eta Narciso Arrillaga adituek bideratuko dute ikastaroa.

ERREDAKZIOA

Bihar 16:30ean Bedaioko Artubi elkartearen zaldi raid-ari buruzko ikastaro interesgarri bat izango da, Kultur Asteburuaren baitan. Ikastaro honek bere funtzio logikoa badu, izan ere, irailaren 28an Bedaio I Hezkuntzako zaldi raid lasteketa osatuko dute. Helburua garbia da: zaldia gehiago ezagutu, eta hortik abiatuz, animalia errespetuz eta zainduz Bedaioko eta ondoko inguruez gozatzea, bai libre bai lasterketa barruan.

Raid bat mendian egiten den zaldi lasterketa bat da. Hezkuntzako esaten zaio inguruko jendea zaldiak dituzten horiek mundu hau zer den erakutsi nahi dutelako. Pixkanaka, gazteak zaldiaren mundura hurbiltzen ari dira, «gero eta zaldi gehiago ikusten da Tolosaldean eta hortaz jabeturik atera nahi dugu lasterketa hau».

Arrazoa, zaldien hobe beharrez

Ikastaro hau egitearen arrazoi nagusia «izaten diren bizio txar horiek zuzentzea» da. «Zaldia oso animalia ederra da bainabaita delikatuera ere, eta hortaz jabetu beharrra dago».

Ikastaroan, lehenik, raid lasterketak dituen arauak azalduko di-



Zaldia ondo zaintzeko argibideak emango dituzte besteak beste. N. LATABURU

tuzte, bete beharreko baldintzak, esaterako, gehieneko eta gutxieneko abiadurak, lizentziak, zaldiaren albaitariaren kontrolak, kontrol guneetan nola jokatu behar den, eta abar.

Zenbait arau bere horretan errespetatuak izan beharko dira, «zaldia eta zaldunaren segurtasunagatik». Adibidez, zaldunak kasikoa beharko du derrigorrez parte hartzeko, edota zaldiak ezin izango du kontrol probetan hainbateko bihotz taupadatik pasa. «Akaso, atsedenen denbora luzatuko dugu edota lizentziak ez dira derrigorrezkoak izango». Parte hau Ma-

rian Guridi albaitariak gidatuko du. Narciso Arrillaga zaldi hezitzaile eta hazitzaileak, berriz, zaldiaren ezaugarri buruz hitz eginduko du.

Zaldiari buruzko informazioa

Entrenamenduak, elikadurak, eguneko zaldi buelta batean ere kontuan izan beharreko gauzak argituko dituzte. Hortaz, ez dago lasterketari soilik bideratuta hitzaldi hau, egunerokotasunean ere aplikatu baitaitezke bertan azaldukoak.

Zaldiak izan ditzakeen gaixotasunak ere jorratuko dituzte: deshi-

dratazioa, kolikoak, arnasketa, errekupezioa, garbiketak... Hauen inguruko informazioa ere emango dute, «honekin etxean gure zaldiaren ondoezak somatzeko lagungarri izango delakoan antolatatu ditugu».

Ikastaro hau aktiboa izango da ahal den neurrian, eta «zaldi bat eramango da Bedaioko frontoira eta bakoitzak eskuko trotea nola egiten den, zaldiaren anatomia eta ezaugarriak bertatik ikusi eta sentitzeko aukera izango du».

Honela «inguruko zaldi erabil-tzailei deia luzatzen diegu, azal daitezzen gerora ere gauzak antolatzeko prest baikaude», antolatzaileen hitzetan. Baina «nola ez, jendearen harrera ikusi behar da».

Bukatzeke, talo-jatea izango da bertaraten direnzentzat: txokolatea, hirugiharra, txorixoa... izango dira Artubinjateko aukera.

Gaur, filma eta etzi mendi martxak

Kultur Asteburu gaur hasiko da, eta horretarako iluntzean Artubi elkartearen film bat ikusteko aukera izango dute bertaraten direnek. Igandean, berriz, mendi martxa oinezkoentzat eta txirrindularientzat prestatu dute: aurtengoa 2. urtea izango da oinezkoena eta txirrindulariarena, lehenena. Izena egunean bertan emanaz gero, ordu erdi lehenago eman behar da frontoian (07:30ean oinezkoak abiatzen hasiko dira, eta txirrindulariak 08:30ean). Bestela, www.bedaio.com webgunean ere eman daiteke.

Laburrak

Bertso Paper Lehiaketara aurkeztuko azken eguna

ALEGIA » Alegian III. Bertso Paper Lehiaketa antolatatu du Zazpi Astoren Gaietan bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean entregatu edo zazpiastorengaietan@gmail.com helbidera bidali behar dira. Azken eguna gaur da.

Gasteizera irteera antolatu dute biharko

ALBIZTUR » Bihar Albizturko jubila-tuentzat irteera antolatu du Saiaz Mankomunitateak Gasteizera. 08:00etan abiatuko dira plazatik izena eman dutenek eta 20:00etarako iritsiko dira berriz. Batez ere, Alde Zaharra bisitatu dute, inguruan bazkalduta.

'Herria Kantuan' saiorako sarrerak agortu egin dira

ALEGIA » Alegian gaurko *Herria Kantuan* emanaldirako sarrerak agortu egin dira. Beraz, 200 lagun izango dira Kultur Etxeko herritarrek prestatutako emanaldi berezian gaur, 22:00etan.

Intxurreko seniorrek ez dute finala jokatu

ALEGIA » Intxurreko senior mailako areto futboleko jokalariek Ordizia-aren aurka Gipuzkoako Kopako finalerdia jokatu zuten asteburuan eta bertan, galdututa egin zuten 6-2. Finala Altzakoak-ek eta Ordiziak jokatu dute.

Hitza Txapelketako seniorren emaitzak

PILOTA » Hitza Pilota Txapelketako seniorren arteko emaitzak hauek izan dira: Baez-Il-Landiribar 13, Iraola-Lopetegi 22; Lazkoz-Keralat 15, Amantegi-Lopez 22; Elurbe-Kantxo 20 eta Etxeberria-Telletxea 22.

Frontenis Txapelketako norgehiagokak asteburuan

BALIARRAIN » Bihar eta etzi Baliarraingo frontoian Baliarraingo Banakako I. Frontenis Txapelketako bigarren asteburuko partidak izango dira. Goizean, 08:30ean hasi eta 19:45ean azken partida jokatu dute. Etzi, berriz ere ariko dira 08:30ean hasita.

Udalekuetako hezitzaile izateko epea zabalik dago

AMEZKETA » Udaleku irekietan hezitzaile aritzeko Amezketako Udalak epea zabaldu egin ditu. Uztailerako antolatu nahi ditu udalekuak. Hezitzaile lanak egiteko eskaera egingo dutenen aukeraketa egiteko erabili diren irizpideak zehaztuta daude: astean hiru egunetan izango dituzte. Gutxienez 1990ean jaiotako izan beharko du eta epea hilaren 12ra arte da.

Mahai teniseko eskolarteko torneoak izan dute Asteasuko Peio Errotan

ERREDAKZIOA

Joan den astean Asteasuko ikastolan mahai teniseko eskolarteko torneoak jokatu zuten. Guztira 24 ikasle aritu dira maila ezberdinetan banatuta: alebinak (neskak eta mutilak) eta benjaminak.

Ohorezko postuak jokatzeke lehenik denak denen artean aritu ziren frontoian. Azkenik, benjaminetan Iker Elizegik irabazi zuen finala Pablo Herreroaren kontra. Alebinetan nabaritu zen jasotzen dituzten klaseak kirol honetan, Olaederran: Ion Flores txapeldu-na izan zen Peru Ortiz de Zarate-ren kontra. Nesketan, lau partehartzaile aritu ziren bakarrik eta Izaro Garmendiak irabazi zuen, bigarren Alaitz Santos geratuz.

Flemingoen eta Jesusen Bihotzekoen jaiak bihar

ERREDAKZIOA

Ikasleen urteko lana bukatzen ari da dagoeneko eta ikastetxeek jaialdi bereziak egiten dituzte garai hauetan. Flemingo ikastetxeek eta Jesusen Bihotzeko ikasleek bihar egingo dute egunean zehar.

Flemingoak 11:00etan hasiko dira Olaederran eta dantza eta abesti emanaldiak eskainiko dituzte. 12:00etan beheko solairuan argazki, eskulan eta telematikoen erakusketa izango da. Jangelan, berriz, 12:45ean ikasleen bertso emanaldia antolatu dute.

13:30ean bazkaria izango da frontoian, eta ondoren, guraso elkarrekin antolatutako ekintzak.

Jesusen Bihotzekoak

Jesusen Bihotza ikastolakoak eguerdian hasiko dira, 14:00etan pilota eta pala partidekin (DBHko-

ak). 15:00etan futbol partidak izango dira Txermin auzoan. Ordu berrean musean aritzeko aukera izango dute DBHko ikasle, irakasle eta gurasoek Txerminen bertan eta izena lehenago eman behar da.

16:00etan krosa izango da Txerminen. Ondoren, irakasle eta ikasleek prestatutako ikuskizuna eskainiko dute. 17:00etan gaztetxo- en eskularen erakusketa izango da. 18:00etan, pailazoan txanda izango da. Ordu bat beranduago, berriz, guraso eta haurren jokoak izango dira.

19:30ean tonbola eta disko festa daude. Afari merienda eta tonbola, ikastolako aterpean. Tonbola hau DBHko 3. mailakoek prestatu dute, azken bidaiarako dirua bil-tzeko asmoz eta pintxoak dasta-tzeko aukera ere izango da. Taber-na zerbitzua ere egongo da.

Udako kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik, astelehenean

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak *Uda 2008* kanpaina prestatu du, hainbat ikastarorekin, bertan, izen-emate epeak astelehenean zabalduko dituzte hilaren 20ra arte. Udako kirol bulegoan eman behar da izena, edo 943 69 44 58ra deituta (1992-99 bitartean jaiotakoentzat dira).

Surfa, hipika eta piraguismoa ikasteko aukera eman dute. Izena emateko diru sarrera egin behar da eta izena eta ikastaroa adierazi egin behar dira. Ordainketa kontu korronte hauetan egin behar da: 2101 0072 78 00000 68122 edo 3035 0046 73 04609 00005. Olaederran aerobik, cycling, tenisa, ige-riketa, multiekintzak, BBT eta patinak izango dira.

«Euskaldunek modu aktiboan entzuten dute eta ezagutzen dute sakon errotutako musika»

ALASDAIR FRASER » Musika

Tolosa » Natalie Haas-ekin batera Mundua Tolosan 08 egitasmoaren azken kontzertua emango du bihar Leidor aretoan.

I. GARCIA

Alasdair Fraser bibolin-jotzaile eskoziarrak eta Natalie Haas txelotzaitze kaliforniarrak kontzertua emango dute bihar, 20:30ean, Leidor antzokian. Sarrerak 20 euro balio ditu eta www.kutxa.net helbidean, Servikutxan edo 943 41 12 00 zenbakian eskura daitezke.

Zer esango zenioke zure musika ezagutzen ez duenari kontzertu-rajateko?

Eman aukera bat zure buruari! Musika dibertigarria da; basatia baina bakoitzarentzako gauza bat ere. Oraindik asko gustatzen zaigu gure lehen diskoa izan zen *Fire and Grace*-eko aldeak esploratzea. Ehundaka urte dituen tradizio batetik ateratzen dugu musika eta leku berrietara eramaten saiatzen gara.

Zein da Skyedance taldearekin



HITZA

eta Natalie Haasekin jotzearen arteko ezberdintasuna?

Gure helburua doinu eta energia sortzea da, non parte guztien batura baino hobea den. Ez duzu behar jende asko egotea eszenatoki gainean entzunlegoari mezu indartsu bat emateko, komunikazio bizikoa, maitasuneko eta emoziozkoa. Egia esan, uste dut askotan bikote bat indartsuagoa izan daitekeela zentzu horretan, guztia askoz ere nabarmenago dagoelako taula gainean eta bien artean

leku berrietara jo dezakegu talde batekin egin ez dezakeen moduan.

Nola deskribatuko zenuke Haasen estiloa?

Natalie musikari indartsu, emozionalki inteligentea eta kitzikagaria da. Askok harririk dituen lekuetara eraman dezake txeloa. Ikaragarriko erritmoa ematen du eta horrek guri aukera ematen digu hainbeste maite ditugun doinu intimoak esploratzeko.

'In The Moment' diskoa aurkezten ari zarete.

Gure material berria jotzeko irrikitan gaude. Horietako doinu batzuk aurretik kontzertuak egiten ari ginela sortutakoak dira. Gure gustuko beste doinu batzuk ere joko ditugu.

Aurretik izan zara Euskal Herrian. Nolakoa da hemengo entzulegoa?

Nire ustez euskaldunei modu aktibo batean entzutea gustatzen zaie eta ezagutzen dute sakon errotuta dagoen kultura musikal batekin duen indarra eta energia. Ohore handia da niretzat nire kultura euskaldunekin partekatzeak aukera izateagatik, bi kulturek antzeko bidaia egiten ari garela uste dudalako.

Kritikak jaso izan dituzue musika eskoziarra egiteagatik San Franciscon bizi zaren bitartean.

Zure ama hizkuntzan jario duzunean, ez du garrantzirik non zauden hitz egiten duzun bitartean. Bibolin eskoziarrak aukera ematen dizu, harrizten nauden modu batean, komunikazio unibertsalaren lekuak ikutzeko. Bidaia musikal/kulturala izan zaitezke, sustariei errespetua diozun heinean.

Askotan oso urrutiko banago ere, batez ere Eskoziatik jasotzen ditut eraginak.

Guztiz musikara dedikatu aurretik, fisikari bezala ere lan egin zenuen. Nola aukeratu zenuen musikatik bizitzeko? Zer da musika zuretzat?

Musikak nire bizitzan zuen garrantziaz urte askotan nire buruari galdetu ostean, konturatu nintzen ez zela azaleko gauza bat: ez zen lana bukatu ondorengo egiteko gauza bat, baizik nire bizitzarekin egin nahi nuen, hau da, zerbaitegitea jendea aldatzeko eta jendea iri emozionalki iristeko aukera ematen duena. Musika ukendu eta sendagari bezala eta aldaketarako eragile bezala askotan zapaldua izaten da mendebaldeko gizartean, batez ere berezko musikak. Maite dut denbora hartzea horretan eta horretatik ikastea eta aukerak esploratzea.

Kepa Junkera Villabonan ariko da jotzen ia ordu berdinean. Berarekin izan duzu harremanik. Zer diozu Junkeretzat?

Ez nekien. Agian gero elkartu gaitzeko berarekin. Kepak bere musikarako eta euskal soinuarekiko duen intentsitatea, sutsu izate hori eta konpromisoa, nik eskoziar soinuak dudaren antzekoa da. Horregatik gonbidatu genuen *Skyedance Live* proiekturako orain urte batzuk. Gogoz nago lagun euskaldunekin kolaborazio gehiagoregiteko.

«Ez dugu kontzertu jakin bat eramaten, beti saiatzen gara zerbaite berezia izan dadin»

KEPA JUNKERA » Musika

Villabona » Kepa Junkera trikitilari bilbotarrak kontzertua emango du bihar Olaederra kiroledegian.

I. GARCIA

Hiri diskoaren azken emanaldietako bat izango da Kepa Junkerak (Bilbo, 1965) Villabonan egingo duena. Bihar izango da hori, 22:30ean, Olaederra kiroledegian. Sarrerak salgai daude herriko tabernatan eta okindegietan. 14 urte artekoek, aurrez 4 euro ordaindu behar dituzte eta leihatilan 6 euro. Helduek, aurrez 10 euro eta leihatilan 13 euro «Gazte Txartelarekin aurrez 7 euro eta leihatilan 10). **Izan zara aurretik Villabonan?**

Villabona ezagutzen dut. Trikitixa jotzen hasi nintzanean Villabona beti izan zen bilgune bat. Amasako Izeta estudioetan ere grabatu dut. Beste disko bat ere aurkeztu nuen kiroledegian eta oso oroitzen onat dut. Zonalde hori musika ohitura handikoa da, ez bakarrik trikitixa

tradizionalarena, baita trikitixareki egin diren proposamen berrienak ere.

Hiri diskoarekin egiten ari zaren emanaldietako bat izango da.

Bai, esan daiteke proiektu honen azken emandiak izaten ari direla. Kontzertuetan ez naiz bakarrik azken proiektuan oinarritzen, beste lanetako abestiak ere sartzen ditugu. Gure musika ez da izaten hainbeste azken lanekoa, gehiago izaten da espazioan bertan eta unean musika sortzea. Abestiak ere aldatu egiten ditut, inprobisazioekin eta. Ez dugu kontzertu jakin bat eramaten, beti saiatzen gara zerbaite berezia izan dadin. Kontzertuan bertan ere zerbaite aldatu dezaket eta musikarietara badakite hori. Baina horrela izan dadin nahi izan dut beti. Eta gustatzen zait musikoei tentsio sortzaile hori izatea eta hain justu taldeak horixe du nabarmeneko, zuzenean duen indarra, energia eta bizitasuna.

Trikitixa beste doinu eta soinubatuera eramateagatik kritikatu izan zara.



HITZA

Proposamen berriak egiten dituen edozein pertsona jasoko ditu beti kritikak. Orain lan berri bat ari naiz prestatzen urte amaierarako eta seguru zeresana izango duela. Nik beti alde positibo baterik hartu dut. Belaunaldiak eta momentuak ezberdinak dira eta logikoa da eztabaida horiek izatea. Trikitixari dagokionez, batzuk pentsatu zuten ez zitzaidala trikitixa gustatzen eta guztiz kontrakoa da. Ni trikitixa tradizionalarekin maitemindu-

ta nago. Nire aitona panderoak jotzen zuen eta nire amaak ere panderoa jo eta dantzan aritzen zen. Trikitilari klasikoaren zalea nahiz. Niri doinu berriak, ideia berriak etortzen zitzaizkidan burura eta orain 30 urte pertsona batek egiten zuena errepikatu ordez, nire bidea bilatzea pentsatu nuen. Niri ere ez zait dena gustatzen eta ez da txarra iritzi kritikok bat izatea. Nire bidea maitasun guztiarekin, lehenaldiari errespetu osoz eta

etorkizunari eta zure kontzertura etortzen denari errespetu osoz egin dut.

Nola ikusten duzu gaur egun musika folk edo herrikoa?

Aldaketa garaia da egungoa. Teknologeri berriek bere espazioa bilatzen ari da eta jende gazteak bere bideak bilatzen ari da eta jasotzen duten deia horri jarraitu behar diote. Nik uste dut etorkizuna bakkoi-tzak bere pertsonalitateak bilatzean datzala, baina bide hori sentitu beharra dago. Musikaren mundua oso konplexua da. Pixkanaka joan behar zara, pausoz-pauso

Musikaren irakaslea zara. Nola ikusten duzu zure lanaren alderdi hori?

Asko gustatzen zait. Kontzertu batean hainbat gauza transmititzen dituzu, baina ez dago hainbeste harreman pertsonal. Ikasleei bilzen joan zaren eta egun dituzun esperientzia guztia eman diezaiokizu. Irakasle izatea ez da zerbaite estatistika.

Alasdair Fraserrek Tolosan joko du larunbatean ere. Zer esango zenuke berari buruz?

Berak nirekin grabatzeko eta nik berarekin grabatzeko zortea izan dut, eszenatokiaren batera izan gara. Bera eta bera bezalako musikariengandik asko dugu ikasteko, musika benetan sentitzen dutelako. Sentimendu askorekin eta poztasun askorekin jotzen duen musikaria da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Bidegoian.** Ostiralean Izar Arregi psikologoak *Emakume edo gizonetzko... bizitzari aurre egin behar so* lasaldia eskainiko du balionitzeko gelan 17:00etan eta 21:00etan afaria izango da Kontzeju jatetxean. Afarirako izena eman nahi dutenek jatetxera bertara dei dezake.

Kirolak

■ **Bedaio.** Bedaio II. Mendi Martxa eta I. Bizikleta Ibilaldia antolatuta dituzte ekainaren 8an. 6-8 ordu inguruko ibilaldia oinez 7:30ean abiatuta eta 3-4 ordukoa bizikletaz, 8:30ean abiatuta. Izen-ematea, Artubi elkartearen.

Erakusketa

■ **Alegia.** Alegiako jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitarte.
■ **Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiaren 25. urteurrena dela eta, ikasle eta ikasle ohien lanen erakusketa ikus daiteke bertan.
■ **Tolosa.** Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai daude Itae tabernan. Tolosa, Donostia, Donibane eta Errezilgo paisajeak.

Zinema

■ **Tolosa.** Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Charles Chaplinen *Candilejas* filma (JBA) emango dute Leidor aretoan 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 673649.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak aitona!

Muxu handi bat Iker eta zure familiaren partetik.



Antzerkiaren festa Amarotz auzoan

TOLOSA ● Amarozko Antzerki Asteak hamar urte bete ditu aruten eta gogotik ari dira ospatzen urteurrena. Pasa den astean ekin zieten antzezlari eta atzo, esaterako, Auzo-Etxean Kontu-Kantoiaren *Esaldi bat, esaldi bi...* Kontu-kontari izan zen ikusgai. Bihar ere izango da zer ikusia auzoan, Valenti Piñoten ikuskizun bat taularatuko baitute Auzo-Etxean. Ekitaldiari 20:00etan emango diote hasiera eta *Una clase de Don Abili* du izena. Halaber, gaur Antzerki Astearen egitarauaren baitan, *Caldilejas* filma izango da ikusgai, Leidorren, 22:30etik aurrera. ee



euskarazko
zure-azoka

berehala gatoz

Ekain beltza berriarekin

eLeBERRI beltzArekin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak

Lau libururik:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€

